Klika
aek
21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA
6-8 urte
LH 1

Informazio orokorra eta argibideak

HELBURUA
Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako KORRIKA ekimenaren zergatiaz eta beharraz ohartzea.

IRAUPENA
KORRIKA 21 apirilaren 4ean hasiko da Garesen, eta apirilaren 14ean amaituko da Gasteizen.

KORRIKA kanpainak bi asteko iraupena izango du. Betiere, irakasleen esku geratuko da kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

PROZEDURA
Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak gehienak solteak baitira. Horrela, beraz, norberaren gustura antola daiteke lanketa. Bestalde, unitate desberdinetako jarduerak erabilgarri izan litezke beste adin tarte batzuetarako ere. Irakasleen esku geratzen da gainerako unitateak begiratu eta gustuko jarduerak beraien mailetara moldatzeko aukera.

Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili jakiteko gomendioa ere bertan duzue.

Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian.

EGITURA
Unitateak adinaren arabera antolatuta daude. Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.

- Haur Hezkuntza (Hegoaldean) eta Ama Eskolan (Iparraldean) lantzekoa.
- 6-8 urtekoekin lantzekoa. (LH 1.zikloa)
- 8-10 urtekoekin lantzekoa. (LH 2.zikloa).
- 10-12 urtekoekin lantzekoa. (LH 3.zikloa).
- 12-18 urtekoekin lantzekoa. (DBH-DBHO)

MATERIALA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK
Webguneak bi atal nagusi ditu: unitate didaktikoen atala eta gida didaktikoena.

Unitate didaktikoen atala ikasleei zuzendurik dago, bertan aurkituko baitituzte landuko duten unitate didaktikoko jarduerak. Horretarako, beraien adin tarteari dagokion unitatean klika egitea besterik ez dute. HH, LH1 eta LH2 unitateetan gelako arbela digitalean proiektatzeko erabil liteke. LH3 eta DBHko kasuan ordea, ordenagailu eramangarrien bitartez, ikasleek beraiek sartu ahal izango dute webgunean.

Gida didaktikoen atala berriz, irakasleentzako da. Bertan, unitate bakoitzari dagozkion azalpenak aurkituko dituzte. Landuko duten unitatea aukeratu eta honen gida didaktikoa deskargatu beharko dute. Gidan agertuko zaizkie jarduera bakoitzaren nondik norakoak, txantiloiak...

Multimedia atalean, jardueretan erabili beharreko baliabide digitalak eskaintzen dira: aurreko Korrika edizioetako kantak, karaokea....

Azkenik, webgunea atalean, Korrikako webgune ofizialerako sarbidea topatuko duzue.

KIDETZE-PLANAK
Plangintza hauek ikasle helduak eta gazteagoak kidetzeko proposamena egiten digute. Hainbat jardueretan, kidetze plana abian jartzeko azalpenak aurki daitezke: ipuina, mezu sekretuak eta dantzatzera jardueretan, esaterako.

Kidetzearen helburuak honako hauek dira:

- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskara-erabileran eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts, horretarako ikasle helduenen protagonismoa bultzatzen da.
- Ikasle nagusiek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.
- Ahozkotasunaren lanketan jardutea.

Kontuan hartu unitatea adinen arabera banatu dugula, baina asmoa ez dela, inondik inora, bakoitza bere jardunean ibiltzea besteenaz ohartu gabe. Zilegi da ekintza elkarrekin egitea; kidetzea da horren adibide bat. Amaiera-ekitaldian zein sarrera-irteeretan antola daitezkeen ekintza osagarri guztiak, beraz, ikastetxe osoari zuzendutakoak izan daitezen ahalegintzea komeni da.

EGILEA
Iñaki Zapirain

KOORDINAZIOA
Tito Serrano (AEK)
Belen Baztarrika (Ikastolen elkartea)

IPUINA
IDAZLEA: Goiatz Labandibar
KONTALARIA: Garazi Urdanpilleta
ILUSTRAZIOA: Iñaki Zapirain

DISEINUA
Arteman Komunikazioaren Artisauak

ESKERRAK
Xan Aire
Xabier Zapirain

JARDUERAK HH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
1. ZER DA KORRIKA?	KORRIKA 21en girotze-lana eta aurkezpena.	• Gelan, tutoreak KORRIKAri buruz galdetuko du. • Ikasle bakoitzak gurasoei KORRIKAri buruz galdetuko die. Albait informazio gehien bildu beharko dute etxeko ariketa horretan. (Fitxa)	• Saio bat gelan. • Etxean tartea hartu fitxa gurasoekin betetzeko. • Saio bat fitxak biltzeko eta komentatzeko.	• Gelako tutorea.
2. KANTA	KORRIKA 21en girotze-lana eta aurkezpena, ikastetxean zein etxean.	• Bideoklipa ikusi. • Kanta entzun. • Sarrera/irteera orduetan, jolas-orduan …KORRIKA 21en abestia jarri. • Etxean, www.korrika.eus webgunearen bidez, aurtengo kanta, baita aurreko edizioetakoak ikusi/entzun familian.	• Kanta entzun eta bideoklipa ikusi lehen egunean. • KORRIKAk irauten duen bitartean.	• Gelako tutorea edota Musika irakaslea.
3. IPUINA	• Kontakizuna entzutea: aditu eta ulertzeko gaitasuna lantzea. • Hiztegia lantzea. • Ahozkotasuna eta irudikapena erabiltzea eta lantzea. • Kidetze-plana abian jartzea.	• Irakasleak ipuinaren izenburua irakurriko du eta ipuina zeren ingurukoa izan daitekeen galdetuko die ikasleei. • Jarraian, ipuina dramatizatuko du, amaiera argitu gabe eta ilustrazioa erakutsi gabe. Ikasleek hipotesiak plazaratu ondoren amaituko du irakurketa. • Ipuina girotzeko, Takolo, Pirritx eta Porrotxen “Akelarrean” kanta erabiliko da. • Irudiak lagunduta, irakasleak ipuina dramatizatuko du. • Kidetze-estrategiaren bidez, DBHko ikasleek ipuina antzeztuko dute edota ipuina irakurriko dute.	• Ipuina lantzeko, 2 saio erabiltzea aurreikusten da. • 3. saio bat aurreikusten da kidetzea lantzeko; azken saio horretan, ikasle helduek txikiei ipuina antzeztuko diete.	• Gelako tutorea.

JARDUERAK HH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
4. LEKUKOA	• Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea. • Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak ezagutzea.	• Irakasleak lekukoaren sinbologia eta garrantzia ezagutzera bideratuta dauden galderak egingo dizkie, denon artean osa dezaten. • Ikasle bakoitzak lekuko bana sortuko du. • Graxi sorginak duen ortzadar koloreko zurezko makilarekin ere konparaketa egin liteke. • Lekukoa 5. jarduerarako gordeko da. • 6. jarduera egitea aurreikusiko balitz, taldeka beste lekuko bat sortu beharko da.	• Adierazpen plastikorako saioak erabili daitezke lekukoa egiteko. • Sinbologia eta garrantzia lantzeko saio bat. • Azken saio bat erabiliko da familian esandakoa komentatzeko.	• Adierazpen plastikoko irakaslea. • Gelako tutorea edo hizkuntza-arduraduna.
5. MEZUA	• Elkarrekin konpartitzea. • Klika kontzeptuaren esanahien inguruan hausnartzea. • Izpiritu kritikoa lantzea.	• Ikasleei Graxiren irudi bana emango zaie zuri-beltzean eta, margotu egingo dute. • Marrazkiko bunbuiloan idatzi beharreko leloaz gogoetatzeko tarte bat hartuko da. • Gogoetatik, lelo bat aterako da, irudian idatziko dena. • 4. jardueran sortutako lekukoa erabiliko da mezua bertan sartu eta ikasleek gurasoekin partekatzeko.	Saio batean marrazkia margotu eta 2. saio batean leloaren inguruko hausnarketa egin.	Gelako tutorea.

JARDUERAK HH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
6. MEZU SEKRETUAK	• Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea. • Euskararen inguruko mezu positiboak luzatzea eta euskararen alde egin dezakegunaz gogoetatzea. • Talde-lana sustatzea, elkarrizketa. • Adin desberdineko ikasleen arteko harremana sustatzea.	• Gelak talde txikitan banatuko dira, LH 1. mailatik LH 6. mailara. • LH 1. mailako ikasleek, orri zuri batean mezu bat idatzi, lekukoan sartu eta jolas lekuan ezkutatuko dute. • LH 2. mailako talde txiki bakoitzak lekuko bat aurkitu beharko du jolaslekuan. Gelara joan, bertan dagoen mezua irakurri eta beraien ideiak gehituko dituzte orrian, lekukoa berriz ere jolaslekuan ezkutatuz. • Dinamika errepikatu egingo da, mailaz maila. • LH 6. mailakoak izango dira lekukoak topatu beharko dituzten azkenak. Hauek arduratuko dira barruan dagoen mezu sekretua osatzeaz eta testua idatzi duten ikasle guztiak batu eta hausnarketa bideratzeaz.	• Saio bat mezua topatu eta osatzeko. • Beste saio bat ikasleak taldeka bildu, mezua irakurri eta hausnarketa partekatzeko.	• Irakasle taldea.
7. IBILBIDEA	• KORRIKA 21en ibilbidea lantzea. • Euskal Herria ezagutzea. • Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta deskribatzeko gaitasuna garatzea.	• Euskal Herriko mapa gela barruan jarri eta, bertan, KORRIKA 21en ibilbidea markatuko dugu: etapa bakoitzaren hasiera eta bukaera.	KORRIKAk irauten duen egun guztietan.	Gelako tutorea.

JARDUERAK HH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
8. DANTZATZERA!	• KORRIKA 21en girotze-lana. • Komunikatzeko gaitasuna garatzea. • Gorputzaren kontzientzia eta koordinazioa hobetzea.	• Ikasleak borobilean jarriko dira eta beraietako batek lekukoa izango du eskuetan. • Lekukoa duen ikaslea dantza irakaslea izango da. • Kanta hastean, dantza irakasleak egiten dituen mugimenduak errepikatuko dituzte gainerakoek. • Dantza irakasleak edozein unetan lekukoa pasako dio ikaskide bati, eta honek jarraitu beharko du dantza irakasle lanetan. • Dinamika errepikatuko da kanta bukatu arte.	Gorputz heziketako saio bat.	Gorputz heziketako irakaslea.
9. PETOA	• Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiltzea. • Sormena lantzea. • A21 plangintzarekiko errespetua lantzea.	• KORRIKA TXIKIrako edo eskolan egingo den jaialdirako petoa prestatu. • Petoaren aurreko aldean KORRIKAko logo orokorra agertuko da eta honen gainaldean ikasleek KORRIKA 21en logoaren bertsio bat margotuko dute, modu librean, sormenari bide emanez. Gogoko duten zenbaki bat ere idatz dezakete bertan. • Petoaren atzeko aldean aurtengo leloa agertuko da. Hau ere modu librean margotu eta apaindu ahal izango dute. • Erabiliko ditugun materialak ahalik eta berrerabilgarri edo birziklagarrienak izango dira.	Plastika arloko bi saio erabiliko ditugu.	Adierazpen plastikoko irakaslea edota gelako tutorea.

JARDUERAK HH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
10. KORRIKA TXIKIA	KORRIKA 20ren girotze-lana.	• 9. jardueran sortutako petoa jantzita aterako dira HH eta LHko ikasle guztiak. • KORRIKAko kanta ezberdinak erabiliko dira animaziorako, megafonoa erabiliz. • 4. jardueran sortutako lekukoak eraman ditzakete eskuetan. • Iristerakoan, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, gazteenak beren urratsean pasatuko direnean txalotzeko. • 6. jardueran idatzitako mezuak irakurri daitezke segidan. • Azkenik KORRIKA 21en kantaren koreografia dantzatuko da.	• KORRIKA herritik pasatzen den egunean, baita aurreko egunetan ere bai. • Ikastetxeko ordutegian.	Gelako tutorea.

1. Zer da KORRIKA?

SARRERA

Jarduera honetan proposatzen dena, Korrika 21en gaian murgiltzen hastea da, jolas kooperatibo sinple baten bidez: Hitz sekretua.

Gaiarekiko jakin-mina piztea, talde-lana sustatzea eta irakurketa/idazketa doi bat lantzea ditugu helburu nagusiak. Jolas honi txertatuko zaio ohiko fitxa, familia inplikarazteko xedez.

PROZEDURA

• Ikasleak zazpi talde txikitan banatuko dira, taldetxoen arteko kopuruak orekatzen saiatuz. Taldetxo bakoitzak tamaina handiko orrialde zuri bat izango du, baita margoak ere.

• Irakasleak taldetxo bakoitzari KORRIKA osatzen duen hizki bat belarrira xuxurlatuko dio, nahas-mahas: gainerako taldetxoek ez dute jakin beharko besteak zertan ari diren. Sekretua ondo-ondo gordetzea eskatuko zaio taldetxo bakoitzari.

• Ondoren, talde bakoitzak ekin beharko dio bere hizkia margotzeari, ahal bezain koloretsu. Debekatuta dago beste taldetxoetara joatea!

• Taldetxo bakoitzak bere hizkia idaztea eta margotzea bukatua duenean, taldetxo guztiak elkarri begira jarriko dira. Oraingoan bai: bakoitzak bere hizkia ondo-ondo azaldu beharko du talde handian! Ea letra-zopa horretatik asmatzen duten hitza: KORRIKA!

• Jolasa bukatzerakoan, umeei etxera eraman beharreko fitxaren berri emango diegu. Ikasle bakoitzak fotokopia bana eramango du (atxikita doaz ikasleei banatu beharreko fitxak).

• Ikasle bakoitzak KORRIKAri buruzko lehen hausnarketa egingo du familian.

• Biharamunean, irakasleak sarrera emango dio jarduerari. Ikasle bakoitzak etxean egindako hausnarketa ahots ozenez kontatuko du: zer dakien KORRIKAri buruz, zer kontatu dioten etxean, etab.

• Irakasleak ordenagailuan aurreko edizioetako argazkiak erakutsiko dizkie.

BALIABIDEAK

• Tamaina handiko orrialde zuriak

• Margoak

• Ikasleei banatzeko fitxa.

• Aurreko edizioetako argazkiak.

1. Zer da KORRIKA?

Ikaslearen izen-abizenak:

Noiz pasatuko da KORRIKA gure herritik? (edo inguruko herrietatik):

Parte hartuko al dugu KORRIKA 21en?

Bilatu etxean KORRIKAko argazkiren bat (aurreko edizioetan parte hartu genuenekoa, gure herritik pasatu zenekoa, amaierako festakoa, prentsatik ebakitakoa ...).

Argazkirik aurkitzen ez badugu, marrazki ederra ere egin dezakegu!

ARGAZKIA

21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

Klika
aek 21. korrika

2. Kanta

SARRERA

Kantuaren bidez, Korrikan girotzeko helburua dago. Ikasleak eta ikastetxeak, noski, baita, txikienekin, familiak ere bai.

Mad Muasel, La Furia eta Fermin Muguruza dira edizio honetako kantaren interpreteak. Trap, dancehall eta hip-hop doinuak eta euskal tradiziokoak nahastu dituzte abesti indartsu eta berritzaile honetan.

PROZEDURA

Gelan dauzkagun baliabideak erabiliko dira (ordenagailua, bozgorailuak...), kantua maiz pasatzeko, egokia zaigun orduetan.

Lehen entzunaldian (edota bideokliparen ikustaldian), hiru galderen inguruan arituko gara lanean:

- Zer iruditu zaizue kanta, bideoklipa?
- Gustatzen al zaizue musika estilo hau?
- Ezagutzen al dituzue abeslariak?
- Zer hitz egin zaizue ezagun/ ezezagun?

Lanketa interesgarriak egin daitezke lexikoaren inguruan, baita kultur-ezagutzan eta musika estilo desberdinen inguruan. Sarean ikertu liteke artisten inguruan, badok.eus bezalako webguneak erabiliz.

Ez ahaztu bideoklipa azpitituluekin edota karaoke moduan eskuragarri dela sarean, molde alaian eta partekatuan ikasteko, KORRIKA TXIKIari begira.

Ikasleen etxeetan ildo beretik jarraitzeko, bideoklipa interneten begiratzeko helbidea luzatuko zaie gurasoei, baita gomendatuko aurreko edizioetako kantak ere ezagutzeko.

BALIABIDEAK

- Korrikako unitate didaktikoen webgunea.

21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

Mad Muasel

Heldu da guztion andereñoa
adi, adi, pasatuko dut zerrenda
je suis Mad Mua Sel ohlala!
Faty faty den soinua zabaltzen dut mundura

Guztiok bat egitea ezinbestekoa
bakoitzaren nortasuna errespetatzea
motorrak arrankatzeko momentuko aukera
gurea, herrikoa, KO RRI KA

Tipi tapa tipi tapa lortzen merezi duguna
martxan jartzen hasteko eginzazu KLIKA
ez dugu presarik helburua argi dago eta.
Pausuz pausu, gure erritmora!

Gure erritmora
nire, zure, gure erritmora
KLIKA KORRIKA KLIKA
GURE ERRITMORA
KLIKA KORRIKA KLIKA
KORRIKA!

Jai giroa, bero beroa
Orain oraingoa gero gerokoa
Oreka ez galtzeko oinarri sendoa
Hauxe da gure leloa:
PO-PO-PO-SIBLEA DA KLIKA ALDATZEA
elkarren artean konektatzea
Pra- pra- praktikatzea
euskara gure artean bizitzea

Lan ta lan, banaka, taldean
Aukeratu zure lekua bidean
Herriaren arnasa sentitzen da
Korrika datorrenean

Zu gabe, zu gabe, hau ez da posible
orain gaur eta hemen dena da POSIBLE

Gure erritmora
nire, zure, gure erritmora
KLIKA KORRIKA KLIKA
GURE ERRITMORA
KLIKA KORRIKA KLIKA
KORRIKA!

Fermin

Klika, klika!
Altxa ezkerreko besoa
klika klika!
Orain altxa eskubikoa
Klika, klika!
Antenak ditugu piztuta
Klika, klika!
Gure sarea doa korrika

Klika, klika!
Euskal planeta ari da dantzan
Klika, klika!
Betikoak ari dira guri sermoika
Klika, klika!
Euskaraz egingo diet zirika
Klika, klika!
Ikimilikiliklik…a!!!

La Furia

Suaren erritmora, hitzari bide eman
arbasoen dantzak, kulturaren gorputzean
Kantauriko brisa, Barde(a)tako ziertzoa
Gure Borrokan tinko jarraitzeko hauspoa
Pista argituko duen metxa piztu dadila
Herri feminista eta askearen alde Klika

Lekukoa neskatxari emango dioten,
Amamek ahotsa altxatu dezatela ozen,
Aterpea sentitzeko,
komunikatzen den herri bat ez da inoiz zatituko.

Erriberatik la Furia banator korrika
Batu gaitezen guztiok arma tiro Klika!

Gure erritmora
Nire, zure, gure erritmora
KLIKA KORRIKA KLIKA
GURE ERRITMORA
KLIKA KORRIKA KLIKA
KORRIKA!

Klika
aek 21. korrika

3. Ipuina

SARRERA

KORRIKA 21en “klika” leloan oinarriturik, aldaketarako daukagun gaitasunaz hausnartzeko aukera eskaini nahi du ipuinak, Graxi protagonistak Garestik Gasteiza egingo duen bidaiaren kontaketarekin. Aukera bat hartuz, hautua eginez, gure bizitzako aspektu askotan aldaketak egin ditzakegula ohartzeko baliagarria izango da istorioa.

Pertsonaiak, euskal tradizioan beti egon izan diren sorginen irudia positiboki azalduz, hizkuntz ohituren aldaketak baikortasunez adierazi nahi ditu, euskara gozamenarekin lotuz.

PROZEDURA

Lehenik irakasleak ipuinaren izenburua aipatuko die ikasleei eta ipuina zeren ingurukoa izan daitekeen galdetuko die. Ikasleen ekarpenak partekatuko dituzte taldean.

Ondoren irakasleak ipuina ahots ozenez irakurriko du, dramatizazio eta intonazio egokia baliatuz, edota ipuinaren audioa jarriko du, baina amaiera argitu gabe, azken hiru paragrafoak irakurri gabe, alegia (audioaren kasuan, 05:34 minutura arte).

Jarraian ipuina nola bukatuko den galdetuko die ikasleei. Hauek beraien hipotesiak plazaratu ondoren ipuina irakurtzen bukatuko du irakasleak.

Ikasleei ipuinari buruzko galderak egingo zaizkie, ulermena eta hiztegia lantzeko.

Azkenik, irakasleak Graxi sorginaren ilustrazioa erakutsiko die eta ipuina irakurriko du berriz, osorik. Euskal Herriko mapa ere jar liteke gelan, eta bertan, Graxi sorginaren ibilbidea markatzen joan.

Ipuina girotzeko, Takolo, Pirritx eta Porrotxen “Akelarrean” kanta erabil daiteke.

OHARRA
Azken irakurketa hau DBHko ikasleek egin dezakete, kidetze-estrategia erabiliz, beraiekin horrela adostuz gero. DBHko ikasleen antzezpena ikusteko aukerak ere aurki daitezke.

BALIABIDEAK

- Ipuina
- Ilustrazioa
- Takolo, Pirritx eta Porrotxen “Akelarrean” kanta, eta hori entzuteko tresneria.

21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

Klika
aek 21. korrika

3. Ipuina

IKIMILIKILI...KLIK!

Graxi sorginak gustuko du **jostatzea**, dantzatzea, abestea, errekan freskatzea eta marraztea. Baina, gehien gustatzen zaiona, sorginkeriak egitea da. Inor konturatu gabe, klik eta klik egiten du. Graxi sorginak magia egiten du, sorginkeria. Sorginkeriak egiten ditu han eta hemen biltzen dituen belarrekin egindako edabeekin, sorginkeriak egiten ditu bere-berea duen ortzadar koloreko **zurezko** makilarekin, eta sorginkeriak egiten ditu loreetatik eta perretxikoetatik lortzen dituen hautsekin.

Graxi sorgina Gares izeneko Nafarroako herri polit batean bizi da. Arga errekak zeharkatzen du herria eta aspaldi eraikitako zubi batek lotzen ditu herriaren alde biak. Baina, tarteka, Garestik atera eta Euskal Herrian barrena ibiltzea gustatzen zaio Graxiri.

Kontatuko dizuet Graxik Euskal Herrian barrena egin zuen azken bidaia? Han eta hemen, Euskal Herri osoan ibili zen sorginkeriak egiten... Agian zure inguruan ere egin zuen sorginkeriaren bat, zu batere konturatu gabe!

Abiatu zen Garestik eta, **baga**, Larrunen geratu zen atseden hartzera. Han zela, neska-mutil talde bat sumatu zuen, batzuetan euskaraz, besteetan erdaraz **mintzatzen**. Graxik, neska-mutikoak konturatu gabe, azeri-buztanez egindako edabe gozo askoa prestatu zuen eta haien kantinplorak eta xahakoak bete zituen. Lagun taldea mendi tontorrera heldu zenean, Bera aldera begiratu zuten lehenengo, Sara aldera gero, eta gozatu ederra hartu zuten paraje eder horiekin. Egarrituta, **zurrup** eta **klik** egin zuten euren kantinplora eta xahakoen muturretatik eta, **kasik** oharkabean, handik aurrera euskaraz aritu ziren euren artean.

Egindako sorginkeriarekin pozik, aurrera jarraitu zuen Graxik. **Biga**! Donibane Garazira heldu zen. Bazekien **sarri** biltzen zirela han inguruko sorgintxoak: Lasatik, Garruzetik, Gabaditik iritsitakoak, baina gehienek ez zekiten haiek ere bazutela sorginkeriatan ibiltzeko **abilidadea**. Horregatik, euskarazko kanta baten ahairea kantatzen hasi zen Graxi, ahopeka, eta zurrumurru baten gisa zabaldu zen Garaziko **karriketan barna**. Diotenez, ordutik, egunero Garaziko eta inguruetako herrietan etxeetako leihoak irekitzen direnean, euskarazko kantuak aditzen dira.

Ondoren, korrika, korrika... **higa**! Hernanira iritsi zen Graxi. Hernaniko aker baten ordenagailuaren barrura sartu zen Graxi, eta, hura konturatu gabe, klik eta klik, euskaraz jarri zion gailua. Mutilak ordenagailua piztu zuen hurrengoan, "ongi etorri" esan zion gailuak. Graxi pozik zebilen batetik bestera, bere sorginkeriek jendea zoriontsu egiten zutela ikusirik.

Horregatik, Balmaseda gainetik pasatu zenean, **laga**!, hauts magikoz zipriztindu zuen herri osoa. Herritarrek pentsatu zuten milaka izar-usok zeharkatzen zutela euren zerua. Izarren hauts hura euren gainean **pausatu** zenean, batek baino gehiagok sentitu zuen euskara ikasteko gogoa.

Izar-usoen sorginkeria eginda, Artziniegan geratu zen Graxi, **boga**! egitera. Herrigunean azaldu zen, **udaletxearen** eta pilotalekuaren arteko plazan, ortzadar koloreko makila bista-bistan. **Iaioa** zen zurezko adaxka hatz artean jira eta bira dantzatzen, eta halaxe hasi zen. Artziniegatarrak begira-begira geratu zitzaizkion Graxiri, eta haiek batere konturatu gabe, makilak sorginkeria egin zuen: "zu, biloba dantzara daramazun aitona hori, belarriprest izango zara; eta zu, postaria, ahobizi. Zu ere ahobizi, neskatila, eta zu, han pilotaleku atzetik lotsatuta begira zauden hori, zu ere belarriprest".

Jakinik Artziniegan ere utzi zuela bere sorginkeriaren arrastoa , **sega**!, bidaia hartan helmuga izango zuen tokira abiatu zen, **abaila** bizian. Gasteiz ez dago Artziniegatik oso urruti, eta uste baino axkarrago heldu zen Graxi. Egia da ziztu bizian egin zuela korri, bizkor-bizkor heldu nahi baitzuen Gasteizera.

Izan ere, Graxik bazekien Gasteizen topatuko zituela Larrungo neska-mutikoak; Garazi inguruko kantariak; Hernaniko aker teknologikoak; Balmasedako euskara ikasleak; Artziniegako ahobizi eta belarriprestak; eta Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat herritako euskaltzaleak.

Graxik Gasteizen egin nahi zuen bere azken sorginkeria: han bildutako guztiekin akelarre erraldoi bat!

Korrika, dantzan, jauzika, irribarretsu, kantari... gozatuz ibili ziren! Eta Graxiri, barru-barrutik irrintzi sorgindu bat atera zitzaion...

IKIMILIKILI...KLIK!!!

Klika
aek 21. korrika

3. Ipuina

HIZTEGIA

Abaila: abiadura
Abilidadea: gaitasuna
Ahairea: doinua
Arrastoa: marka
Barna: barrena
Iaioa: abila
Jostatzea: Jolastea
Karriketan: kaleetan
Kasik: Ia
Mintzatzen: hizketan
Pausatu: geratu
Sarri: maiz
Udaletxe: herriko etxea
Zurezko: Egurrezko
Zurrup eta klik: Edan
Baga, biga, higa, laga, boga, sega: Antza denez, akelarretan Bat, bi, hiru, lau, bost, sei zenbakiak adierazteko erabiltzen ziren formula fonetikoak.

4. Lekukoa

SARRERA

Irakasleak lekukoaren sinbologia eta garrantzia ezagutzera bideratuta dauden galderak egingo dizkie. Denon artean argituko dute lekukoa, ibilbide guztian zehar eskuz-esku pasatzen den makila dela eta barruan mezu sekretu bat daramala, amaierara iristen denean argitzen dena.

Lekukoa, ipuineko protagonistaren makila magikoarekin ere konparatu liteke, Graxirena bezain magikoa ote den galdetuz.

PROZEDURA

• Ikasleei komuneko edo sukaldeko paperaren tutuak ekar ditzaten eskatuko diegu jarduera egin aurretik. Ikasle bakoitzak bere lekukoa izango du.

• KORRIKA 21en irudiez balia daiteke, tutuak apaintzeko edo Graxi sorginaren makila magikoa bezala margotu tenperak erabiliz, ortzadarraren koloreekin.

• Azkenik, pinotxo-papera baliatuz koloretako zintak egin eta goiko muturrean itsatsi.

• Lekukoa 5. jarduerarako gordeko da.

OHARRA

Mezu sekretuen 6. jarduera egitea aurreikusten bada, ikasleak talde txikitan banatu beharko dira eta talde bakoitzak beste lekuko bat sortu beharko du. Ikus 6. jarduera.

BALIABIDEAK

• Komuneko edo sukaldeko paperaren barrualdeko tutuak.

• Lekeda.

• Margoak.

• Koloretako zintak (pinotxo-papera, lazoak, hariak...).

5. Mezua

SARRERA

Jarduera honen helburua, ikasleak Korrikaren mezuarekin jolastea da: errritual horretaz jabetzea (mezua gogoetatzea eta sortzea, lekukoan sartzea, eta besteekin partekatzea).

Horretarako margoketa erabiliko dugu sarbide erakargarri gisa.

Familiak KORRIKA 21era animatzea ere badaude helburuetan.

PROZEDURA

• Ikasleei ipuineko protagonistaren irudi bana emango zaie zuri-beltzean eta margotu egingo dute.

• Marrazkiko bunbuiloan idatzi beharreko leloaz gogoetatzeko tarte bat hartuko da. Zertan egin genezake guk "klika"? Zertan eragiten du Graxiren magiak? Ideia hauek aintzat hartuz galdera batzuk landuko dira talde txikietan (aurrez bozeramailea ere aukeratzea eska daiteke):
  • Zenbat hizkuntza erabiltzen ditu bakoitzak etxean, familian? Eta zeintzuk?
  • Euskara zertarako erabiltzen da, norekin, zein egoeretan?
  • Ezagutzen al duzu euskara ikasten hastea erabaki duenik?
  * (Ikasle zaharrenekin) Euskarak berdin edo ezberdin egiten gaitu?

• Bateratzean, taldetxo bakoitzetik zer atera den entzuteko, ikasle guztiei arreta eta errespetua eskatuko zaie.

• Erantzunak jaso ahala, azpimarratuko ditugu bizi-egoeren ezberdintasuna, baita euskaraz bizitzeko era ezberdinak ere bai.

• Euskarak zertan batzen gaituen ohartarazten saiatuko gara.

• Hortik, atera diren ideiak laburbiltzen dituen lelo bat adostuko dugu, eta idatziko: irakasleak arbelean, ikasleek margotu berri duten orrialdean, bakoitzak bere izena ere ipintzea eskatuz.

• Bakoitzak bere margolana bildu, eta aurrez egindako lekukoan sartuko du.

• Ikasle bakoitzak bere lekukoa eramango du etxera, eta bertan, gurasoekin batera zabalduko dute, marrazkia eta leloa elkarrekin komentatuz.

• Biharamunean, irakasleak tarte bat edukiko du, etxekoa nola iragan den komentatzeko, eta KORRIKAra animatzen diren galdetzeko. Azpimarra daiteke bakoitzaren herri edo eskualdetik KORRIKA 21 noiz pasatzen den.

BALIABIDEAK

• Zuri-beltzeko marrazkia (hurrengo orrialdea).

• Margoak.

• Aurrez ekoiztutako lekukoak.

Klika
aek
21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

6. Mezu sekretuak

SARRERA

Korrikan gertatu ohi den bezala, lekuko barruan dagoen mezu sekretua jakitera ematen den unean sortzen den zirrara sortu nahi da jarduera honetan. Lekukoaren sinbologiaz jabetzen jarraitzeko ere balioko du jarduera honek.

Bestalde, ikasleen arteko harremanak sustatu nahi dira, emozioz beteriko momentu hau, adin desberdinetako ikasleek batera biziko baitute. Modu honetan, elkarrekin egingo duten hausnarketak balio handiagoa izango du, berdinetik berdinera egingo baitute.

Ikasle zaharrenek arduratsu jokatu beharko dute jardueraren amaierako elkarrizketak bideratzen.

PROZEDURA

• Gelak talde txikitan banatuko dira, LH 1. mailatik LH 6. mailara. Maila desberdinetako irakasleen koordinazioa ezinbestekoa izango da, gela bakoitzean talde kopuru bera egingo dela bermatzeko.

• LH 1. mailako ikasleek, orri zuri bat hartuko dute eta bertan euskararen aldeko mezu bat idatzi edo marrazki bat egingo dute taldeka. Beraien ekoizpenaren ondoren, taldekideen izenak idatziko dituzte eta baita gelarena ere.

Orri zurian idatzitako mezu sekretua, 5. jardueran sortutako lekukoan sartuko dute, eta jolas lekuko txoko batean ezkutatuko dute.

• LH 1. mailako ikasleek beraien lana bukatutakoan, LH 2. mailakoen txanda izango da. Talde txiki bakoitzak lekuko bat aurkitu beharko du jolaslekuan. Kasu honetan ere, irakasleek elkarrekin koordinatu beharko dute, lekukoak bilatzen has daitezkeela jakinarazteko.

Gelara joan, bertan dagoen mezua irakurri edo marrazkia ikusi, eta beraien mezuak gehituko dituzte lekuko barruko orrian, taldekideen izen-abizenekin batera. Jarraian, jolas lekuko txokoren batean ezkutatuko dute berriz ere.

• Dinamika errepikatu egingo da, mailaz maila. Talde guztiak lekukoak aurkitzen joango dira eta mezuak gehitzen, edo idatzitakoak osatzen. Ez dezatela ahaztu mezua sinatzea.

• LH 6. mailakoak izango dira lekukoak topatu beharko dituzten azkenak. Hauek arduratuko dira barruan dagoen mezu sekretua osatzeaz eta azken ukituak emateaz. Azken hauek ere, mezua sinatuko dute.

Bestalde, talde txiki bakoitzeko partaideen lana hau izango da: topatu duten lekuko barruko mezu sekretua idazteaz arduratu diren maila bakoitzeko ikasle txikiagoak elkartzea eta jolas lekura eramatea. Bertan, borobilean eseriko dituzte partaide guztiak eta mezu sekretua irakurriko dute. Azkenik, hausnarketa bideratuko dute ikasle txikiekin.

- Gustatu al zaie mezu sekretua?
- Espero al zuten emaitza hori?
- Zer sentitu dute mezua irakurtzerakoan?

OHARRA

Jarduera honek aldaera gehiago izan ditzake. Lerro bat baino gehiagoko eskoletan esaterako, talde txikiak sortu beharrean, gelako ikasle guztien artean adostu daiteke mezua eta gela bakoitzak lekuko bakarra egin.

Modu honetan, gela bakoitzeko ikasle guztiek elkarrekin aurkitu beharko dute ezkutatutako lekukoa eta elkarren artean adostu, zer gehituko dioten mezuari. Mezuari gehitu beharrekoa adosteko talde txikiak sortu daitezke, eta ondoren, gelakide guztiei gehien gustatu zaien proposamena bozkatu.

Aldaera hau aukeratuz gero, LH 6.mailakoek eskolako ikasle guztien artean idatzitako mezua osatuko dute. Korrika txikian irakurtzeko erabil daiteke mezu sekretua.

BALIABIDEAK

• LH 1. mailakoek sortutako lekukoak.

• Orri zuriak.

7. Ibilbidea

SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKA 21en jarraipena egitea da. Horretarako, AEK koordinakundeak www.korrika.eus webgunean erakusgai duen GPS bilatzailea erabiliko da.

KORRIKA egunez egun zein bazterretan dagoen jakiteaz gain, Euskal Herriko txoko eta bazterrak gehiago ezagutzeko aukera izango dugu.

PROZEDURA

• Euskal Herriko mapa gela barruan edo ikastolako pasabideetan jarriko da eta bertan KORRIKA 21en ibilbidea markatuko dugu: KORRIKA non hasi, non amaitu eta egun bakoitzeko etapen hasiera eta amaiera puntuak.

• Egun bakoitzean, hasiera-puntutik bukaerarainoko ibilbidea markatuko da.

• Egun guztietan antzeko orduan webgunea begiratu eta momentu horretan KORRIKA non dagoen markatuko da mapan.

• Aukera ikusiko balitz, prentsan, eta batez ere interneten topatutako argazkiak mapan kokatu eta lekuen deskribapenak osatuko ditugu.

BALIABIDEAK

• Euskal Herriko mapa (ikusi hurrengo orrialdea).

• KORRIKA 21en ibilbidea (ikusi hurrengo orrialdea).

• www.korrika.eus webgunea.

• Eranskailuak.

7. Ibilbidea



21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

Klika
aek 21. korrika

7. Ibilbidea

21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

7. Ibilbidea

APIRILAK 4, OSTEGUNA	
Gares	**17:00**
Mañeru	17:38
Zirauki	17:58
Lorka	18:33
Villatuerta	18:59
Lizarra	19:25
Muniain	20:30
Morentin	20:40
Deikaztelu	20:53
Allo	21:16
Sesma	22:34
Lodosa	23:26
APIRILAK 5, OSTIRALA	
Andosilla	01:04
San Adrian	01:22
Azagra	01:52
Milagro	03:31
Cadreita	04:14
Arguedas	04:58
Tutera	06:28
Murchante	07:07
Cascante	07:44
Tutera	08:36
Valtierra	10:40
Alesbes	12:17
Faltzes	14:14
Erriberri	16:21
Tafalla	17:06
Makirriain	18:37
Lerga	19:55
Oibar	21:39
Zangoza	22:31
APIRILAK 6, LARUNBATA	
Irunberri	00:16
Domeñu	01:10
Nabaskoze	02:49
Ezkaroze	05:14
Garralda	08:06
Oroz-Betelu	09:04
Nagore	10:11
Agoitz	11:28
Olatz	13:50
Sarriguren	14:05
Mutiloa	14:35
Iruñea	14:47
Zizur Txikia	15:37
Zizur Nagusia	15:54
Barañain	16:06
Iruñea	16:20
Berriozar	17:48
Artikaberri	18:03
Antsoain	18:33
Iruñea	18:47
Burlata	18:59
Atarrabia	19:13
Uharte	19:23
Zubiri	21:01
Erro	21:53
Auritz	23:28
Orreaga	23:46
APIRILAK 7, IGANDEA	
Luzaide	01:30
Arnegi	01:53
D. Garazi	02:47
Larzabale	04:21
Muskildi	06:12
Maule	07:10
Donapaleu	10:06
Aiherra	13:10
Hazparne	13:42
Itsasu	15:17
Kanbo	15:30
Uztaritze	16:33
Hiriburu	17:42
Baiona	18:04
Bokale	18:47
Angelu	19:14
Biarritze	20:01
Arbona	20:59
D. Lohizune	22:24
Urruña	23:29
APIRILAK 8, ASTELEHENA	
Hendaia	00:20
Irun	00:42
Hondarribia	00:54
Bera	02:52
Lesaka	03:42
Igantzi	04:18
Etxalar	05:09
Sara	07:13
Azkaine	07:59
Senpere	08:50
Ezpeleta	09:56
Ainhoa	10:35
Urdazubi	10:54
Elizondo	13:22
Doneztebe	14:57
Ituren	15:23
Ezkurra	16:47
Leitza	18:05
Uitzi	18:57
Lekunberri	19:23
Urritza	20:25
Jauntsarats	21:17
Larraintzar	22:29
Gelbentzu	22:55
Eritzegoiti	23:27
APIRILAK 9, ASTEARTEA	
Irurtzun	01:01
Etxarren	01:23
Uharte Arakil	02:25
Lakuntza	02:59
Arbizu	03:13
Etxarri Aranatz	03:45
Bakaiku	04:06
Urdiain	04:22
Altsasu	04:45
Olatzagutia	05:17
Ziordia	05:37
Egino	06:03
Araia	06:35
Zalduondo	07:14
Erdoña	07:33

7. Ibilbidea

Agurain	07:53
Dallo	09:04
Dulantzi	09:36
Egileta	10:15
Azazeta	10:46
Maeztu	11:30
Kanpezu	13:00
Genevilla	13:31
Meano	14:39
Ekora	15:10
Lantziego	15:51
Guardia	16:55
Leza	17:34
Samaniego	18:04
Bastida	19:15
Urizaharra	20:47
Trebiñu	22:13
Argantzon	23:11
APIRILAK 10, ASTEAZKENA	
Langraitz	00:07
Anda	02:07
Izarra	02:35
Ametzaga	03:09
Murgia	03:16
Izarra	04:16
Urduña	05:39
Amurrio	06:11
Arespalditza	07:10
Luiaondo	08:00
Laudio	08:17
Arrigorriaga	10:25
Basauri	10:53
Etxebarri	11:39
Galdakao	12:12
Usansolo	12:57
Larrabetzu	13:43
Derio	14:55
Sondika	15:29
Leioa	16:54
Laukiz	17:59
Urduliz	18:29
Plentzia	19:08
Gorliz	19:14
Sopela	20:24
Algorta	21:39
Portugalete	22:55
Santurtzi	22:59
APIRILAK 11, OSTEGUNA	
Sestao	00:05
Barakaldo	00:31
Trapagaran	01:58
Ortuella	02:30
Abanto	03:15
Muskiz	04:04
Sopuerta	05:09
Galdames	05:32
Gueñes	06:46
Zalla	07:09
Balmaseda	07:50
Artziniega	09:03
Gordexola	09:51
Sodupe	10:40
Bilbo	11:46
Erandio	16:19
Loiu	16:46
Gatika	17:28
Mungia	17:49
Bakio	19:35
Bermeo	20:12
Forua	22:04
Gernika-Lumo	22:11
APIRILAK 12, OSTIRALA	
Ibarrangelu	00:09
Lekeitio	01:32
Markiña-Xemein	03:40
Ondarroa	05:06
Mutriku	06:00
Elgoibar	07:36
Azkoitia	08:59
Zestoa	10:35
Zumaia	11:33
Zarautz	13:00
Orio	13:47
Usurbil	14:30
Lasarte-Oria	15:33
Donostia	16:28
Pasaia	21:05
Lezo	22:39
Orereta	22:52
Oiartzun	23:54
APIRILAK 13, LARUNBATA	
Astigarraga	01:02
Hernani	01:24
Urnieta	02:03
Andoain	02:26
Amasa-Villabona	03:29
Tolosa	04:15
Ikaztegieta	05:44
Legorreta	06:03
Ordizia	06:29
Beasain	06:42
Olaberria	07:19
Idiazabal	07:54
Ormaiztegi	09:27
Zumarraga	10:25
Urretxu	10:31
Legazpi	10:57
Oñati	12:13
Bergara	13:31
Soraluze	14:29
Eibar	14:55
Ermua	15:29
Mallabia	15:50
Zaldibar	16:21
Berriz	16:35
Elorrio	16:56
Abadiño	18:20
Durango	18:55
Zornotza	20:05
Lemoa	21:11
Igorre	21:49
Dima	22:20
Zeanuri	23:48
APIRILAK 14, IGANDEA	
Otxandio	01:02
Aramaio	03:03
Arrasate	03:52
Aretxabaleta	04:27
Eskoriatza	04:42
Leintz Gatzaga	05:30
Legutio	06:09
Durana	08:08
Gasteiz	08:23
Amaiera	12:30

21. korrika aek
2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

ikastolenelkartea

Klika
aek 21. korrika

8. Dantzatzera!

SARRERA

Jarduera honen helburua, taldearen baitako komunikazioa lantzea da eta gorputzaren kontzientzia eta koordinazioa hobetzea, beti ere, Korrikaren giroan murgildurik jarraituz.

Aurretik landutako kanta eta lekukoa beste testuinguru batean berrerabiliko dira hemen.

PROZEDURA

• Ikasleak borobilean jarriko dira eta beraietako batek lekukoa izango du eskuetan.

• Lekukoa duen ikaslea dantza irakaslea izango da.

• Kanta hastean, dantza irakasleak egiten dituen mugimenduak errepikatuko dituzte gainerako ikaskideek.

• Dantza irakasleak, berak nahi duen unean lekukoa pasako dio ikaskide bati, eta honek jarraitu beharko du dantza irakasle lanetan, nahi dituen urratsak eta mugimenduak eginez.

• Dinamika errepikatuko da kanta bukatu arte.

• Helburua ikaskide guztiak momentu batez dantza irakasle izatea izango da.

• Aurtengo edizioko kantaz gain, aurreko ediziotakoak ere erabil daitezke. Webguneko multimedia atalean topatuko dituzue.

OHARRA
Egoki ikusiko balitz, kidetze estrategia erabiliz, 3. zikloko ikasleek sortutako dantza ere ikas dezakete ikasleek. Ikus LH2 unitateko 8. jarduera eta LH3 unitateko 5. jarduera.

BALIABIDEAK

• Korrikako kanta.

• Unitate didaktikoen webgunea.

9. Petoa

SARRERA

Jarduera hau edizio guztietan errepikatzen den horietakoa da. Papera da jarduera hau burutzeko baliabide nagusia. Plastikoa, ahal dela, baztertu egingo dugu, ingurumena kutsatzen duela kontuan harturik; hala ere, aurreko edizioetarako erabilitakoak birziklatzea proposatuko dizuegu.

Aukera bikaina da ingurugiro eta birziklapenari buruz hitz egiteko eta A21eko konpromisoak gogora ekartzeko.

PROZEDURA

• Petoaren aurreko aldean KORRIKAko logo orokorra agertuko da eta honen gainaldean ikasleek KORRIKA 21en logoaren bertsio bat margotuko dute, modu librean, sormenari bide emanez (ondorengo orrian). Gogoko duten zenbaki bat ere idatz dezakete bertan.

• Petoaren atzeko aldean aurtengo leloa agertuko da. Hau ere modu librean margotu eta apaindu ahal izango dute, koloretako gometxak erabiliz, adibidez.

• Bi aldeak margotu ondoren ertzetatik moztuko dugu. Atzeko eta aurreko aldeak kamisetari lotuko dizkiogu kateorratzen laguntzaz edota soka edo lazoak erabiliz eta ertzak lotuz.

• Erabiliko ditugun materialak ahalik eta berrerabilgarri edo birziklagarrienak izango dira.

• Herriren batean ikastetxe bat baino gehiago balego eta Korrika txikia elkarrekin ospatuko balute, petoaren atzealdean Korrika txikian parte hartuko duten ikastetxe guztien logotipoak txertatu daitezke, euskararen aldeko ekimen honetan denek bat egiten dutela adieraziz.

BALIABIDEAK

• Aurreko urteetako petoak (izatekotan).

• Petoaren fotokopia Din A-4 tamainara handituta (ikus hurrengo orrialdea).

• Margoak.

• Gometxak.

• Artaziak.

• Kateorratzak.

• Soka, lazoa edo antzekoa.


eitb
LABORAL
kutxa
aek
21. korrika

euskaltel
klika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA
www.korrika.eus
korrika

10. KORRIKA txikia

SARRERA

KORRIKA TXIKIA kasuan kasuko herritik KORRIKA 21 pasatzen den egunean egitea litzateke egokiena. Dena den, KORRIKA 21 pasa aurretik ere egin daiteke KORRIKA TXIKIA. KORRIKA 21 herritik pasatuko ez balitz, lurraldea hartuko da erreferentziatzat.

Jarduera hau, lagunartean eta giro alaian egitekoa da, hortaz, ezinbestekoa da ikasleen arteko kidetzea eta errespetuzko jarrera bultzatzea.

Herri eta zonalde bakoitzean euskaltegiek eman ohi dituzten jarraibideen arabera antolatuko da KORRIKA TXIKIA.

PROZEDURA

• Ikasleak aurrez adostutako ibilbideko puntu desberdinetan egongo dira, zikloka eta mailaka antolatuta.

• Lekukoa eskuz esku joango da, ikasle zaharrenetatik hasi eta gazteenetaraino.

• KORRIKA TXIKIA iristean, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, eta ikasle gazteenak ttipi-ttapa pasatzean, txalotu egingo dituzte.

• Bukaeran, lekukoaren barruan joango den mezua irakurriko da eta LHko ikasleek prestatutako KORRIKA 21en kantaren koreografia dantzatuko da.

BALIABIDEAK

• Petoa soinean.

• Megafonian KORRIKA 21eko kanta; aurreko urteetako KORRIKA kantak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Tipi-Tapa, Korrika! diskokoak ere bai.